













## **EH BILDUK DIAGNOSTIKOARI ETA PLANARI EGINDAKO EKARPENAK ETA HORIEK TXERTATZEKO PROPOSAMENAK**






---

*Taldeak proposatutako ekarpenak jasotzen dira zutabe batean, ondoren ekarpena sartzeko aukerak eta baita nola txertatu den planean, posible izan den kasuetan.*

ATALA	TALDEAREN PROPOSAMENA (literala)	EGOERA/AUKERAK	NON SARTU DA	EMAITZA
Plana	Hori da Hondarribiko EH Bilduk hobesten duen definizioa eta, horregatik proposatzen dugu plana Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako plana (?) baino Genero Berdintasun Plana deitzea.	Emakundek erabiltzen duen izena jarraitzea erabaki da.		 Ez da aldatu.
Diagn.	Ez dugu partitzen Hondarribiko Alardeari buruz egiten den gogoeta (41. or.) Hondarribiko jai nagusietako ekitaldi esanguratsuenean, Alardean, gertatzen dena giza eskubideen urraketa da. Horrela ikusten dute Emakunde eta Ararteko erakundeek, besteak beste, eta horrela aitortua izan da epaitegietako hainbat ebazpenetan. Diagnostikoak, gure ustez, horrela adierazi beharko luke: Alardean emakumeei berdintasunean parte hartu ahal izatea ukatzea giza eskubideen urraketa da. Bestela, halako hizkera anbigua erabiliaz, gizonezkoek, soilik, desfilatzea defendatzen dutenen jarrera eta portaera zuritzea litzateke, EH Bildu ez da horrelakoetan eroriko. Alabaina, bai eskatzen dugu gauzak diren moduan adieraztea eta dagozkion izendapenekin.	Printzipioz diagnostiko orokor bat egiteko nahikoa dela eritzi da.		 Ez da aldatu.
Diagn.	Esandakoa salbuetsita, diagnostikoak, orokorrean, balio du (des)berdintasunaren auzia zertan den antzemateko. Dena den, hutsune batzuk antzeman ditugu: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adineko emakumeen egoera: bakardadea, osasuna, arazo ekonomikoak (pentsioak) eta abar.</li> <li>- Bestetik, ez dugu aurkitu informazio esanguratsurik irakaskuntzako egoeraz, sexu-heziketaz, aholkularitza zerbitzuez eta abar.</li> </ul>	Pentsionisten inguruko informazioa gehitu da diagnostikoan. Irakaskuntza eta sexu heziketari lotutako ekintzak ere gehitu dira planean nahiz eta diagnostikoan ez den horren inguruko informazio asko jaso.	Diagnostikoan 49. orrian >Realizar talleres sobre cuerpo y sexualidad desde un enfoque feminista. >Identificar, en el marco del Gazteleku, las necesidades específicas de información sobre sexualidad de las adolescentes. >Cooperar con los centros para que implementen el programa Nahiko en los centros educativos (Programa coeducativo para la Igualdad, el Respeto y la No-violencia de Emakunde).	 Aldatu da.

Plana	Genero berdintasun plana abiatzeko, azaltzeko eta gauzatzeko komenigarria izango litzateke Hondarribiko udalean Berdintasunerako Batzordea eratuta egotea eta Genero Berdintasunerako Teknikaria lanean izatea. Organo horiek izango lirateke Hondarribia Hiriko Genero Berdintasuna Planaren arduradun nagusiak. Horiek gabe, jakina, plana egin daiteke baina plana egin eta onartu ondoren, gauzatu ezean, paper errea izango lirateke. Aipatu organoak baitira Genero Berdintasun Plana gidatzeko eta egikaritzeko eragilea nagusiak.	Plana aurrera eramango duen estruktura bat egongo da (berdintasun zinegotzia eta teknikari bat). Talde interdepartamental bat sortuko da, sail ezberdinetako teknikariekin. Berdintasun mahaia sortuko da, herriko emakume eta elkarte ezberdinek presentzia izan dezaten.	Ejecución, seguimiento y evaluación del Plan> 30.orria	 Egokitu da.
	Hondarribiko Genero Berdintasun Teknikaria lehiaketa publikoaren bitartez ahalik azkarren kontratatzea.	Momentuz ez da berdintasun teknikaria bideragarri ikusten, hurrengo urteetarako aukera bat izan daiteke.		 Ez da aldatu.
	Jarraitu behar da Hondarribiko emakumeen gaineko ikerketa beka deialdi berriak egiten, ikerketa bultzatzen eta zabaltzen.	Bai, ekintza bat egokitu da.	Enfoque de género en los procedimientos de trabajo>Realizar una investigación de carácter local que aborde la igualdad (puede ser un estudio vinculado a colectivos vulnerables en el que se contemple a las mujeres que tejen redes, mujeres del entorno rural, pensionistas, etc.). 3.orria	 Aldatu da.
	Aurrekontuetan zehaztu genero-berdintasuna sustatzeko diru-zuzkidura nahikoa, gutxienik, aurrekontuaren % 1a.	Aurrekontu bat egongo da berdintasun politiketara bideratuta, partida propioa, nahiz eta ez den iristen %1era.		 Neurri batean badago.
	Udaleko langile eta hautetsientzat genero-berdintasunari buruzko prestakuntza plana diseinatzea eta gauzatzea.	Hau egingo da, nahiz eta ez den zehazten plan bat egingo denik. Lehen urteko planifikazioan zehaztuko da zenbatero, zein gai landuko diren, etab..		 Badago.

<p>Kontratazio hautaketa batzordeetan genero-berdintasun ikuspegia txertatu, baita, lehiaketetan, sariketetan eta abarretan.</p>	<p>Bai, garrantzitsua da. Lehen urtean zehar antolatuko diren formakuntzek bidea erraztuko dute hau garatzen joateko. Planteatutako ideian oinarrituz bi ekintza gehitu dira. Hortaz aparte honako ekintzak ere jasotzen ditu planak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Formar equipos mixtos para la selección de personas.</li> <li>- Revisar los criterios de selección, eliminando aquellos que pudiera ser discriminatorios o en los que primen las capacidades masculinas.</li> <li>- Adoptar medidas de acción positiva en las contrataciones para disminuir la segregación horizontal.</li> </ul>	<p>Enfoque de género en los procesos&gt; Incluir contenidos relativos a la Igualdad en los procesos selectivos de acceso y promoción en el empleo público. &gt;Diagnosticar cómo se está trabajando actualmente en los procesos de selección, concursos, premios, etc. en relación a la perspectiva de género. &gt;Identificar propuestas para incorporar la perspectiva de género en los procesos de selección, concursos, premios, etc. 4.orria</p>	<p> Aldatu da.</p>
<p>Sortu Hondarribiko Genero Berdintasunaren gaineko Behatokia 3 : Hondarribiko Genero Berdintasun Indizea kalkulatzeko eta hobekuntza politiken jarraipena egin ahal izateko.</p>	<p>Momentuz ez da bideragarri ikusten.</p>		<p> Ez da aldatu.</p>
<p>Herriko jaietan genero berdintasuna sustatzeko eta lortzeko, zehazki, alardearen parekidetasuna lortzea beharrezkoa da. Horretarako abiatutako elkarrizketa prozesua azkartu behar da. Udal gobernuak bere egitasmoan jaso behar du hori, xedea eta prozedurak zehaztuz.</p>	<p>Berdintasun planetik haratago doan prozesu bat martxan egongo da beraz, prozesu horren markoan landuko dira Alardearen hainbat kontu.</p>		<p> Badago</p>
<p>Emakumeen izenen presentzia zabaldu kale izendegian, eraikin publikoetan eta, oro har, eremu publikoetan.</p>	<p>Ekintza bi gehitu dira.</p>	<p>Apoyo al empoderamiento personal&gt;Impulsar el reconocimiento del papel de las mujeres y del feminismo para el desarrollo humano sostenible&gt; Fomentar acciones que visibilicen y reconozcan las aportaciones de</p>	<p> Aldatu da.</p>

			<p>las mujeres y del feminismo al avance social en Igualdad</p> <p>&gt; Crear una lista de nombre en colaboración con agentes sociales del municipio para próximos nombres.</p> <p>&gt; Aumentar el número de calles y edificios públicos con nombre de mujeres. 8.orria</p>	
	<p>Hondarribiko Zaintzaren gaineko Udal Ordenantza egin eta eragin. Emakumezkoek egin ohi dituzten zaintza lanen katalogoa egin; zaintza lanen araudia sortu; zaintzaileen lan baldintzak hobetu; Adineko emakumeen arretarako bulegoa sortu; ...</p>	<p>Zaintzaren inguruko rolen aldaketa bideratzeko ekintzak planteatu dira planean. Momentuz bestelakoak egitea ez da bideragarri ikusten.</p>		<p> Ez da aldatu.</p>
	<p>Saregileen lana arautu eta berdindu alorreko gizonezkoen baldintza eta eskubideekin; gizarte segurantza, erretretarako baldintzak berdintzea eta abar. Era berean, egin beharko litzateke emakume baserritarren kasuan eta, oro har, emakumea izateagatik bazterturik dauden bestelako langileen kasuan.</p>	<p>Hausnarketa honetan oinarrituz ikerketa bat egitea proposatu da, non emakume rol edo kolektibo ezberdin inguruko errealitatea aztertu (baserritarrak, saregileak, etab.)</p>	<p>Enfoque de género en procedimientos de trabajo&gt; Realizar estudios e investigaciones que busquen promover la igualdad, analizar las desigualdades, identificar necesidades específicas de las mujeres, etc. 4.orria</p>	<p> Aldatu da.</p>
	<p>Sexu heziketarako eta aholkularitzako udal zerbitzua sortu Genero Berdintasun Teknikariaren ardurapean.</p>	<p>Hurrengo planean gauzatzeko ideia bat izan daiteke.</p>		<p> Ez da aldatu.</p>
	<p>Emakumezko pentsiodunen bulegoa sortu; 1080 € lan egin duten emakume guztientzat!</p>	<p>Agian ez da bulego berri bat izan behar, egun dagoen errekurtsoren batetik bideratu daiteke. Marko zabalago batean aztertu beharko litzateke.</p>		<p> Ez da aldatu.</p>
	<p>Hondarribiko Emakumeen Etxea sortu.</p>	<p>Hurrengo planean gauzatzeko ideia bat izan daiteke.</p>		<p> Ez da aldatu.</p>